

# { BABES GARA }

## GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

# { zehar }

errefuxiatuekin

2023ko iraila

## SARRERA

---

Munduko hainbat eskualde eta herrialdetan, mehatxuak eta jazarpenak pairatzen dituzte giza eskubideen defendatzaileek eta haien erakundeek, eta arriskuan jartzen dituzte beren bizitza eta osotasun fisiko nahiz psikologikoa, bai eta beren senideena ere. Kolektibo horrek beren lurralde edo jardun-eremutik lekualdatzera behartua izateko arrisku berezia du.

Hilketak egiturazko indarkeria sistematikoaren icebergaren tontorra baino ez dira. Askotan, hilketa baino lehen erasoak eta mehatxuak ere izaten dira. Sarri, justizia-sistema haien lana mugatzeko, haiek isilarazteko eta haien sinesgarritasuna ahultzeko erabiltzen da, eta zigorgabetasuna izaten da nagusi. Gizartearen protestak indarkeria neurrigabe erabiliz zapaltzen dira; eta estigmatizazio-kanpainak abiarazten dira, beste bortizkeria-ekintzen artean. Errealitate horri egin behar izaten diote aurre egunero justizia sozialaren eta indarkeriarik gabeko eta miseriarik gabeko bizitzaren alde lan egiten duten pertsona askok.

Jazarpeneko eta behartuta lekualdatzeko egoera horiek gero eta ezagunagoak dira, giza eskubideen alde diharduten defendatzaileek, erakundeek eta gizataldeek beren jatorriko herrialde barruan nahiz kanpoan egindako ikusarazte-lanari esker, bai eta nazioarteko komunitatearen laguntza eta babesari esker ere. Nolanahi ere, defendatzaile ugariaren babesgabetasun-egoerak larriki eragozten du haien lan legitimoa, eta haien bizitza eta osotasun fisiko eta emozionala etengabe arriskuan izaten dira.

Esparru horretan, lanean jarraitzea funtsezkoa da, erakunde horien ekarpen baliotsua aintzat har dadin, bai askatasunaren, berdintasunaren eta justizia sozialaren printzipioetan aurrera egiteko lanetan, bai indarkeriari bide ematen dioten egiturazko kausak ikusgai egin eta desagerrarazteko lanetan. Haien borrokak babestea funtsezkoa da bizitzari eusteko.

Hala, aldi batez babesteko programak nazioarteko babes eta elkartasuneko tresna dira, giza eskubideen defendatzaileak beste herrialde batzuetan aldi baterako birkokatzeko aukera ematen dutenez. Alde batetik, harreran hartutako pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa babesten laguntzen dute eta, bestaldetik, jatorriko lurraldean giza eskubideen aldeko prozesuei eusten ere, harrera-herrialdeetako antolakunde, mugimendu eta erakundeekin lotura eratuz.

Giza eskubideen defendatzaileak babestea biziki gomendatzen dute nazioartean<sup>1</sup> eta asmo horrek badu lege-esparrua Europan<sup>2</sup> nahiz Espainian<sup>3</sup> ere.

---

<sup>1</sup> 60/161 Ebazpena (2. eranskina) Nazio Batuen Batzar Nagusiarena: Gizabanakoek, taldeek eta erakundeek mundu osoan onartutako giza eskubideak eta oinarriko askatasunak bultzatu eta babesteko dituzten eskubideari eta betebeharrari buruzko adierazpena.

<sup>2</sup> Europar Batasunaren gidalerroak Giza Eskubideen Defendatzaileei buruz, 2004ko ekainaren 14a. 2008an berrikusiak.

<sup>3</sup> 1257/2007 Errege Dekretua, "... laguntzen xede diren arreta humanitarioko ekintzak, giza eskubideen defendatzaileei bizi diren herrialdeetatik ateratzen laguntzera zuzendurikoak..." (1.2 art.).

## AURREKARIAK

---

2011n, Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailak, Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programa martxan jarri zuen. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzaren esku dago programa eta eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babesa dauka.

Eusko Jaurlaritzak, hala, giza eskubideekiko eta nazioarteko elkartasunarekiko konpromisotik, giza eskubideak defendatzen dituzten pertsona, erakunde, komunitate eta sareak babesten laguntzeko hainbat lan-ildo bultzatzen ditu; tartean, Programa hau.

Zehar-Errefuxiatuekin elkarrekin garatzen eta kudeatzen du Programa. Elkarrekin ibilbide luzea du errefuxiatu, lekualdatu, aberrigabe eta migratzaileen giza eskubideak babesten eta sustatzen. Erbestetara behartuta dauden pertsonentzat asilo-eskubidea defendatzen du elkarrekin, baita arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileak babesteko mekanismoak inplementatzea ere, euren lurraldeetara itzul daitezela. Saihestu egingo da, horrela, behartutako lekualdatze iraunkorra eta, hortaz, eraldaketa sozialerako prozesuak etetea.

Programaren aurrekaria aurkitzeko 2009ra egin behar da atzera; izan ere, urte hartan hasi ziren Kolektiba Colombia<sup>4</sup> elkarrekin bildutako lankidetzako eta giza eskubideen aldeko euskal erakundeak herrialde hartako egoerarekin kezkatzen. Alde batetik, elkartasunaren eta lankidetzaren aldeko euskal elkarrekin Kolonbiako erakunde eta komunitateekin egiten zuten lana gero eta konplexuagoa zen, lurraldeetan zegoen indarkeriengatik; eta, bestetik, babes-lana egiten zuten erakundeek asilo-eskaerak, oro har, eta, zehazki, Kolonbiatik etorritako pertsonen asilo-eskaerak sistematikoki ukatzeko politika bat zegoela ikusten zuten. Orduan, Estatuan –batez ere Asturiasen eta Katalunian– jada abiarazitako babes-esperientziak aztertu zituzten eta, Eusko Jaurlaritzarekin batera, lankidetzaren eta elkartasunaren alde lan egiten zuten euskal elkarrekin berezitasunei egokitutako babes-programa bat ezartzeko erabakia hartu zuten. Horrela, bada, 2011. urtean Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programa sortu zen.

Kolonbiatik etorritako defendatzaileekin izandako lehen esperientzien ondoren, programa zabaldu eta, pixkanaka, beste herrialde eta eskualde batzuetan hasi zen lanean. Hori horrela, harrezkero, 30 pertsona baino gehiago hartu ditugu Euskadin, indigenen, afrikarren ondorengo, nekazarien, hiritarren, ikasleen, feministen eta sexu-aniztasunaren defendatzaileen erakunde eta komunitateen ordezkari; hartara, giza eskubideak eta bizitza babesten lagundu da Kolonbian, Hondurasen, Guatemalan, Perun, El Salvadorren, Nikaraguan eta Saharako lurralde okupatuetan.

Defendatzaileak beren sorlekura itzuli eta gero, erakunde eta gizataldeei egiten zaien jarraipenaren esparruan<sup>5</sup>, Programa honek hainbat bisitaldi bideratu ditu Kolonbiara, Guatemalara, Perura eta Hondurasera<sup>6</sup>.

---

<sup>4</sup> Iniciativa de Solidaridad con Colombia / Kolonbiarekiko Elkartasun Iniziatiba. Garai hartan honako elkarrekin hauek ziren kide: Colectivo Bachué, Mugarik Gabe, Mundu bat, Paz con Dignidad, Posada de los Abrazos eta Zehar-Errefuxiatuekin (garai hartan CEAR-Euskadi).

<sup>5</sup> Tokian-tokira egindako bisitei buruzko informazio gehiago: "Prozedura. Jarraipena".

<sup>6</sup> Tokian tokiko bisitaldiei buruzko txostenak kontsulta ditzakezu hemen: <https://www.euskadi.eus/giza-eskubideen-defendatzaileak/web01-s1lehbak/eu/> eta <https://zehar.eus/eu/errefuxiatuekin/giza-eskubideak/>

Ibilbide horri esker metatutako esperientziak jardunbide egokien eredu bihurtu du Programa, Espainian eta Europan martxan jarri diren beste ekimen batzuetarako eredu izan dena, hain zuzen.

## **GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA**

---

### ***Helburuak eta lan egiteko moduak***

Programaren helburua da jaioterrian gauzatzen duten jarduera dela-eta beren bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan duten giza eskubideen defendatzaileak babesten laguntzea, Euskadin sei hilabeterako hartuta. Horretarako, gure laguntza honako hauek lortzera bideratzen da:

- Babesa eta elkartasuna emateko nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea, erakunde eta elkarten agenda politiko bat sortuta Euskadin, Espainiako Estatuan eta, kasuan-kasuan, Europan.
- Atsedeen hartzeko eta fisikoki nahiz emozionalki osatzeko toki bat eskaintzea, zaintza erdigunean jartzearen alde eginez. Defendatzaileen gorputzak biziki kaltetuta egoten dira indarkeriak eta jazarpen- nahiz mehatxu-egoeran bizi izateak sorrarazten dituen estresaren, segurtasun ezaren, beldurren eta errepresio politikoaren somatizazioa direla-eta. Gainera, emakumeen kasuan, indarkeria matxistak ere gehitu behar zaizkie. Gorputzari jaramon egitea eta osasunari ikuspegi holistiko batetik begiratzea oinarritzekoak dira. Indartzea, errekuperatzea, atsedeen hartzea, gorputzari entzuteko espazioak izatea, laguntza psikoterapeutikoa eta arreta medikoa izatea funtsezko estrategia politikoa da norbanakoa eta kolektiboa indartzeko.

Honela ulertzen dugu babesak<sup>7</sup>: pertsonen, erakundeek eta instituzioek bizitzeko eta lan egiteko eremu seguruak sortzeko eta hedatzeko gauzatzen ditugun ekintzen multzoa. Norbanakoaren edo kolektiboaren osotasun fisiko, digital, emozional edo espiritualaren aurkako balizko mehatxuei aurre egiteko hainbat estrategia biltzen ditu. Gure ustez, mehatxurik ez izateaz gain, pertsonen, komunitateen eta kolektiboaren ongizatea ere hartzen du bere baitan babesak, betiere alderdi guztiei erreparatuta.

Babesean adituak diren erakundeek ***hiru estrategia mota*** nabarmentzen dituzte :

- **Onarpena:** arriskuak gutxitzea du xede, erasotzaile potentzialen tolerantzia lortzearen erakundearen lanarekiko. Onarpen-maila areagotzeko modurik onenetarikoak da giza eskubideen defentsan egiten den lanaren ezagutza eta lanarekiko errespetua sustatzea (komunitatearen baiezko politika eta soziala). Hori lortzeko, harreman positibo bide eman behar zaie, erakundea ezagutzera eman eta eragile independente gisa zilegitasun-kuota handiagoak lortu.
- **Babesa:** testuinguruaren eta arriskuaren azterketa oinarri hartuta, segurtasuna areagotu egiten da neurri eta prozedura operatiboak identifikatu eta martxan jartzean, hala nola balizko erasoaren aurrean jarduteko protokoloak, laguntza psikosoziala kolektiboko kideei, autobabeserako neurriak edo informazioa eta komunikazioa modu seguruan erabiltzea.
- **Disuasioa:** arriskua gutxitzea dute xede, mehatxua geldiaraztea edo saihestea lortzen dutenez erasoak gauzatzeak dakartzan kostu politikoak areagotuko dituzten eragin-ekintzen bitartez. Salaketa-kanpainen bitartez egin daiteke hori, presioa egiteko ahalmena duten aliantzak –naziokoak eta nazioartekoak– sortuz edo indartuz, edo agintariekin hitz eginez, besteak beste.

---

<sup>7</sup> ANSUR kolektiboak emandako definizioarekin bat egiten dugu; erakunde horrek 10 urte daramatza Programan laguntzen.

Estrategia horiek ez dira elkarren baztertzailak. Konbinazio edo uztarketa egokia lortzea da kontua, betiere testuingurua, kolektibo bakoitzaren indargune eta ahuleziak, eta dituzten sare eta aliantzak aintzat hartuta. Onarpen- eta babes-estrategien bitartez arriskua gutxitzen da, barne-osagaietan eragiten, kalteberatasuna gutxitzen eta erantzuteko ahalmena areagotzen dutenez; disuasio-estrategiekin, berriz, prebentzio-lana egiten da mehatxuei dagokienez.

Tradizioz, babesaren eraso eta mehatxuen aurreko erreakzio-erantzuna dela ulertu izan da. Azken urteotan, ordea, ikuspegi integralago baterantz egin dugu aurrera, **lau dimentsio** kontuan izanik: antolaketa, harremanak, segurtasuna eta alderdi psikosoziala:

- **Antolaketa:** erakundearen barneko eta funtzionamenduko elementuak dira. Esaterako, babesari buruzko etengabeko prestakuntzako planak garatzeko tokia izatea, lanerako eta erabakiak hartzeko metodologia berriak, botere-harremanak eta barne-dinamikak berrikustea, aniztasuna horizontalki eta errespetuz komunikatzeko aukera ematen duten mekanismoak, informazioa maneiatzea, testuinguruaren azterketa egiteko espazio formalak eta kolektiboak, arrisku-maila baloratzea eta babes-estrategiak definitzea.
- **Harremanak:** erakundeak nazio barruan zein nazioartean dituen sareak eta aliantzak, horien berrikuspena, eta horiek areagotzeko eta indartzeko mekanismoak. Dimentsio hori zuzenean lotzen da intzidentzia-lanarekin, beste erakunde batzuekiko sinergiekin eta gizarte-sarea indartzearekin.
- **Segurtasun-neurriak:** gutxi edo asko, eguneroko jardunak dira, prebentziora edo erreakzioetara nola jokatu pentsatzeko aukera ematen duten jardunak. Hor sartzan dira, halaber, neurri pertsonal eta kolektiboak –esaterako, alde batetik bestera joatean–, informazioaren erabilera egokia –segurtasun digitala baliatuta–, hainbat egoeratan jarduteko protokoloak, larrialdietako planak, bulego edo etxebizitzaren babes fisikoa eta abar.
- **Alderdi psikosozialak:** erakundeko kideen eta senideen ongizatea eta zaintza bermatzeko egiten den guztia biltzen da hor, erantzukizun politiko indibidual eta kolektibotzat hartzen den aldetik. Besteak beste, indarkeriaren ondorioei ikuspegi intersektional batetik aurre egiteko moduak, emozioak adierazteko barne-mekanismoak, beldurraren kudeaketa, arrisku-egoeran bizitzeak eragindako nekearen eta estresaren prebentzioa, prebentzioko eta erreakzioko laguntza-estrategiak larrialdi baten ondoren.

### **Giza eskubideen defendatzaileak**

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoari jarraikiz, giza eskubideen defendatzaileak dira indibidualki nahiz besteekin batera giza eskubideak sustatzeko edo babesteko ahaleginak egiten dituzten pertsonak. Termino zabala da, eta barnean biltzen ditu giza eskubideen urraketa oro desagerrarazten laguntzen eta eskubideon benetako baliatzea sustatzen dituzten horiek, direla banakoak, direla kolektiboak.

Giza eskubideen defentsa eta sustapena berez da eskubidea, Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Adierazpenaren<sup>8</sup> 1. artikuluan ezarritakoaren arabera:

---

<sup>8</sup>Gizabanakoek, taldeek eta erakundeek mundu osoan onartutako giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak bultzatu eta babesteko dituzten eskubideari eta betebeharrari buruzko adierazpena, Nazio Batuen Batzar Orokorraren A/RES/53/144 Ebazpenaren bitartez onetsia.

*“Pertsona orok du, banaka edo taldeka, herrialdean eta nazioartean giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen gauzatzea eta babesa lortzen saiatu eta bultzatzeko eskubidea”.*

Esparru horretan, Programan honako hauek jotzen dira giza eskubideen defendatzailetzat: eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial, kultural, ingurumeneko, sexual eta ugalketakoen defentsan diharduten antolakunde edo mugimendu sozialekin edo instantziekin lotutako pertsonak.

Lehentasuna emango zaie giza eskubideen defendatzaileen egoeraren inguruan Nazio Batuen Errelatoretza Bereziak finkatutako kolektiboek:

- Antolakunde **feministetako** kide diren **emakumeak** eta **LGTBIQ+** pertsonen eskubideen defentsan diharduten pertsonak.
- Eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumeneko defentsan diharduten pertsonak, batez ere, **lur- eta lurralde-eskubidea aldarrikatzen dutenak, herri indigenak eta afrikarren ondorengoak.**

Front Line Defenders-en arabera, 2022. urtean giza eskubideen 401 defendatzaile, gutxienez, erail zituzten 26 herrialdeetan. % 48 lurraren, ingurumenaren eta herri indigenen eskubideen defentsan ziharduten pertsonak ziren.

- **Kolektibo minorizatuen eskubideen** alde diharduten pertsonak.

### ***Agente parte-hartzaileak***

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak gidatzen du Programa, eta eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza ere badu. Zehar-Errefuxiatuekin elkarteari dagokio koordinazio teknikoa, hau da, pertsona errefuxiatuen, desplazatuena, aberrigabeen eta migratzaileen defentsan eta sustapenean ibilbide luzea duen erakundeari.

Inplikaturik daude, halaber, Programaren Hautespen Batzordearen bidez, Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa Institutua, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko Elkarrekin Foroa eta Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza, zeinak ekintza instituzionalaosatzen duen Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzarekin eta eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera, biak ere jada aipatutakoak.

Bestalde, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeak bere atekak zabaltzen ditu urtero hartutako defendatzaileen agerpenetarako, tokira bertara egindako jarraipen-bisitetan parte hartzen du eta adierazpen instituzionalak bultzatzen ditu.

Programaren garapena ez litzateke posible izango lankidetzarekin eta elkartasunarekin lotutako gizarte-arloko euskal erakunde eta mugimenduen parte-hartzerik gabe, haiek aurkezten baitituzte arriskuan dauden eta aldi baterako birkokatu behar diren defendatzaileei buruzko eskeak. Programaren Laguntza Sarean sartzen dira erakunde horiek.

Beatriz Puerta aditua da babes integral feministaren alorrean, eta laguntza eta aholkularitza eskaintzen dio Programari gai honetan; eta Ekimen Elkarrekin –indarkeria sozio-

politikoaren eta torturen biktimei arreta emateko kabinete psikoterapeutikoak– arreta indibidualizatua ematen die hartutako defendatzaileei, arreta hori jasotzea erabakitzen dutenean.

Programan parte hartu duten defendatzaileek eta kolektiboek osatzen dute sare hori.

## **Prozedura**

### 1. Hautagaitzen aurkezpena

Hiru pertsona hartzen ditu urtero Programak sei hilabeteko aldirako. Ikuspegi feminista batetik begiratuta, beren kargura seme-alabak dituzten emakumeei sarbidea erraztearen aldeko apustua egiten du.

Urtero, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak deialdi ofiziala argitaratzen du hautagaitzak aurkezteko, hilabeteko epearekin.

Honako hauek dira sartzeko **eskakizunak**:

- Giza eskubideen defendatzaile antolatuak, hau da, erakundeetako, gizarte-mugimenduetako edo kolektiboetako kide direnak.

Programara biltzen diren pertsonak babesten lagundu nahi dugu, baita pertsona horien erakunde eta kolektiboak babesten ere. Defendatzaileek pairatzen dituzten indarkerien helburu nagusia gizarte-sarea haustea da, beldurrak eta mesfidantzak sortuz. Babes kolektiboa sendotzean zailagoa da erasoak eta mehatxuak pertsonalizatzea, eta, hori horrela, erakundeek bizitza eta giza eskubideak defendatzen jarraitzeko duten erresistentzia eta gaitasuna gehitu egiten da.

- Euskal entitateen, erakundeen edo gizarte-mugimenduen bidez aurkeztu behar dira hautagaitzak.

Lankidetzaren eta elkartasunaren arloko euskal erakundeek egiten duten lanarekiko erreminta osagarria da Programa. Erakunde horiek ezagutzen dituzte zein testuingurutan lan egiten duten arriskuan dauden erakunde eta kolektiboek, eta haiek, betiere elkarrekiko ezagutza eta konfiantza horietan oinarritua, lagunduko dute defendatzaileen agenda politikoa garatzen Euskadin. Itzuli ondoren, hartutako pertsonen eta haien kolektiboen egoeraren jarraipena egitea ez litzateke posible izango euskal erakundeek beren rola betetzen ez badute, ezen prozesu horietan laguntzen eta zuzeneko komunikazio trabarik gabea izaten jarraituko baitute, Programa gertatu daitezkeen arrisku-egoeren inguruan ohartaraziz.

Izaera prebentiboa du Programak, eta horrek baldintzatzen ditu Programaren beraren funtzionamendua eta agendak. Giza eskubideak defendatzen beren lanean erasoak eta mehatxuak pairatzen dituzten arren herrialdetik berehala edo modu iraunkorrean nahitaez irteteko premiarik ez duten pertsonen erantzuten die.

Zehar-Errefuxiatuekin elkarrekin formularioak jaso eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzara bidaltzen ditu.

### 2. Hautespena

Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak Hautespen Batzordea deitzen du. Batzordeak, formularioan eta bidalitako dokumentazioan oinarrituta, baita arrisku- eta genero-irizpideetan ere, adostasunez erabakitzen du zein izango diren hartuko diren hiru pertsonak. Irizpide horien asmoa da bermatzea Programak modu positiboan lagundu dezala babesaren helburuan, eta hartutako pertsonen eta haien erakunde, kolektibo edo



komunitateen aurkako erasoak eta bortizkeria-ekintzak gauzatzea saihesten, eta, horrekin batera, emakume defendatzaileek babes-erreminta hori baliatzeko aukera izan dezatela bermatzea.

Hautatutako hautagaitzak dituzten euskal erakundeak Laguntza Sarean sartuko dira eta komunikazio-kanala izango dira Programaren koordinazioaren (Zehar-Errefuxiatuekin) eta jatorriko erakundearen artean.

### 3. Irteera jatorrizko herrialdeetatik

Jatorriko erakundeek, Laguntza Sareak eta Zehar-Errefuxiatuekin elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuna Zuzendaritzarekin koordinatuta, elkarrekin antolatzen dute irteera (bidaiaren prestaketa, dokumentazioaren kudeaketa, espektatibak non kokatu) eta Euskadin egingo den harrera.

### 4. Harrera

Ikuspegi feminista eta psikosozial batetik garatzen da Programa, eta horren bidez artikulatzen da intzidentzia politikoa, laguntza psikoterapeutikoa eta hartutako pertsonen zaintza.

- Laguntza psikosoziala: babesaren ikuspuntu integral batetik garatzen da Programa, eta zenbait elementu jasotzen ditu, hala nola alderdi pertsonalak, antolamenduzkoak eta politikoak, indarkeria matxisten eta indarkeria soziopolitikoaren inpaktuengatik arreta berezia eskatzen duten pertsonen laguntza psikoterapeutikoa, eta hartutako pertsonen zaintza herrialdeetik aldi baterako ateratzearen esperientzia gauzatzean.
- Agenda politikoa: Euskadiko egonaldian egindako lanak pertsona horien eta haien erakundearen babes instituzional eta politikoarekin lotutako nazioarteko sareak zabaltzea eta sustatzea du helburu. Sare horiek, praktikan, jatorriko lekuan giza eskubideen defentsan egiten den lanaren jarraitutasuna ahalbidetzen duten babes-mekanismo gisa dihardute. Lan honi esker giza eskubideen defentsan lan egiten duten erakundeek pairatzen duten mehatxu-egoeraren inguruan sentsibilizatu, egoera hori ageriko egin, eta euskal herritarren eta erakundearen aurrean – eta, kasuan kasu, Espainiakoen eta Europakoaren aurrean – salatu daiteke, baita alor horretan erakunde horiek dituzten aldarrikapenak ezagutarazi ere.

Defendatzaile horiek Euskadin aldi baterako hartzeak, halaber, beren jatorriko testuinguruetan bizitzen duten errealitatea euskal gizarteari hurbiltzea ahalbidetzen du. Haien esperientziak eta jakintzak ekarpen baliotsua dira gizarte-eraldatzeko gure prozesu propioetarako.

- Prestakuntza-agenda: haien interes eta kezken arabera, prestakuntza espezializatua aurreikusten da giza eskubideen defentsarekin eta sustapenarekin lotutako alderdietan. Programara biltzen diren pertsonen aitortutako lan-ibilbidea dutenez, hizlari bezala ere parte hartuko dute gune akademiko eta sozialetan.

### 5. Itzulera

Une garrantzitsuenetako bat da, batez ere hartutako pertsonen segurtasunari dagokionez. Euskadiko egonaldian egindako lan guztia itzulera segurtasun-baldintzak sortzera bideratuko da: aliantzak sortzea, sendotze indibidual eta kolektiboa, atsedena eta ongi-zatea.

Testuinguru-azterketa bat eta arrisku-diagnostiko bat lantzearekin osatuko da lan hori, eta horren bidez itzulera-plan bat definitu ahalko dugu non zenbait ekintza sartuko diren

jatorriko kolektiboekin, Programan inplikaturako instituzio eta erakundeekin, eta denborak aurrera egin ahala Euskadin sortu diren elkartasun politikoaren arloko sareekin koordinatuta.

## 6. Jarraipena

Behin pertsonak beren herrialdeetara itzultzen direnean, haien egoeraren jarraipen bat egiten dute Programak eta Laguntza Sareak. Ekintza nagusien artean nabarmentzekoa da komunikatuak, gutunak edo komunikazio pribatuak idaztea hainbat instituzio publiko edo nazioarteko erakunderekin arrisku- edo mehatxu-egoerak direla eta. Instituzioen, erakundeen eta gizarte-mugimenduen arteko artikulazioak hainbat erantzun martxan jarzea ahalbidetzen du, hainbat jarduketa-eremutatik, babesari sortzeko lagungarriak direnak. Prebentzio-ekintzak dira erakundeei ematen zaien babesari agerikotasuna emateko eta haien borrorak legitimatzeko, edo eraso- edo mehatxu-egoera espezifikoaren aurrean erreakzionatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza buru duen Euskal Ordezkaritzak **tokira bertara egindako bisitarekin** osatzen dira ekintza horiek, baita eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordearen, Laguntza Sareko erakundeen eta Zehar-Errefuxiatuekin elkarrearen parte-hartzearekin ere. Programan hartutako pertsonen egoera pertsonalaren eta komunitarioaren jarraipena egitea da helburua, baita haien babes-sarea indartzea eta euskal gobernuaren, Legebiltzarraren eta elkartearen laguntza nabarmentzea ere. Bisitan komunitate, erakunde eta gizarte-mugimenduekin zein erakunde publiko, nazioarteko erakunde eta kidego diplomatikoekin egingo diren bileren agenda estu bat garatuko dugu hartutako pertsonen segurtasunarekin eta babesarekin lotutako kezka eta eskaera nagusiak helarazteko. Publikoki zabaltzen den txosten batean biltzen dira eduki esanguratsuenak. Orain arte jarraipen-bisitak egin dira Kolonbian, Guatemalan, Perun eta Hondurasen<sup>9</sup>.

Hainbat herrialdeetako pertsonak hartzen ditu Programak eta, hori horrela, arriskuarekin, babesarekin (disuasio-gaitasuna) eta koiunturarekin lotutako irizpideei kasu eginez diseinatzen da tokira bertara egiten den bisita urtero, baliabideen kudeaketan koherentziarekin lotutako irizpideak ere kontuan izanda.

---

<sup>9</sup> Hemen kontsultatu ditzakezu tokira bertara egindako bisiten txostenak: <https://www.euskadi.eus/defensores-y-defensoras-de-los-derechos-humanos/web01-s1lehbak/es/> y <https://zehar.eus/errefuxiatuekin/derechos-humanos/>

## IKASKUNTZAK ETA ERRONKAK

---

Urte hauetako lan kolektiboaren ondorioz, gure ikaskuntzetako batzuk partekatu ditza-kegu, baita gainditu behar ditugun erronkak ere.

### IKASKUNTZAK

- **Elkarrizketa eta eraikuntza bateratua:** Europatik garatzen diren babes-estrategia eta babes-ekimenak arriskuan dauden erakundeekin batera diseinatzea, kontinenteko lurraldeetan garatzen ari diren autobabesekeo estrategietatik abiatuta.
- **Babesaren ikuspegi integrala:** babesari adierazitako lau dimentsioak hartzen dituen begirada batetik ekitea: antolamenduzkoa, harremanetakoa, segurtasun-neurriak eta psikosoziala.
- **Ikuspegi feminista:** emakumeak programetan sartu daitezela lehenestea, har-rrera erraztea haien seme-alabekin batera, familia- eta hazte-ikuspegia sartzea ematen den laguntzan, testuinguru- eta arrisku-azterketetan pairatzen dituzten indarkeria espezifikokoak barnean hartzea, afektuak (laguntza dutela jakitea eta lagunduak sentitzea) balioan jartzea, lankidetzeta-harreman horizontalak sortzea eta beren gaitasunetatik abiatzea, gorputzaren begirada holistikoko bat sartzea osasun fisikoa eta osasun emozionala barnean hartuz, horiexek dira emakumeen parte-hartzea eta errekonozimendua posible egiten duten funtsezko elementue-tako batzuk.
- **Sareko lana:** eskumen eta jarduketa-esparru desberdinak eta osagarriak dituz-ten agenteen (instituzio publikoak, giza eskubideen erakundeak, gizarte-mugi-menduak eta akademia) defendatzaileen eta haien erakundeen babes-sareak gehitzeko eta sendotzeko.

Programak artikulazio egonkor eta sendoa dauka gaur egun Estatu espainolean garatutako babes-programekin eta Protect Defenders EBko babes-mekanismo-arekin, zeina giza eskubideen esparruan aktibo dauden 12 GKEren partzuergo batek gidatzen duen. Horrez gain, giza eskubideen defendatzaileak aldi baterako birkokatzekeo Plataforma global batean ere sartuta dago, giza eskubideen defen-datzaileei buruzko Europar Batasuneko Gidalerroak betetzeko Europako Batzor-deak abiarazitako ekimen batean. Helburu gisa babes-premiei erantzun koordi-natua ematea duten unibertsitate, gobernu kanpoko erakunde, hiri, udalerrri eta gobernuak parte hartzen dute Plataforman.

### ERRONKAK

- **Kausen salaketa, erantzuleak eta biktimarioak:** babes-lanak eta defendatzaile-  
leen aurkako indarkeriak sortzen dituzten kausen salaketak eskutik joan behar  
dute. Inplikaturak dauden edo konibenteak diren gobernu eta erakundeen eran-  
tzukizuna adierazi behar da, baita enpresa multinazionaleri lurraldeetan sartzeko  
posibilitatea arautzen eta ahalbidetzen dien enpresa-inbertsioari lotutako araudi-  
aren eta politiken ondorioak ere; hainbat interes erantzunez defendatzaileei  
eraso egiten dieten talde armatuen jarduna –Estatuaren segurtasun-kidego eta -  
indarrak, talde paramilitarrak, krimen antolatua, narkoak, gerrillak...– salatu be-  
har da; eta Eliza batzuk botere ikusezin gisa jokatzeko duten rola defendatzaileen  
lanaren kriminalizazioan lagunduz, batez ere feministen eta LGTBIQ+ ekintzaile-  
leen kasuan.
- **Erakundeak jatorrian sendotzea:** gizarte-erakunde eta -mugimenduak sendo-  
tzeko estrategiekin batera joan behar dute babes-programek. Hauxe da babes-  
teko lehenengo gunea.

- Giza eskubideen defentsaren eta babesaren **ikuspegi kolektiboa**: defendatzaileen babes-premietan haien familiak, kolektiboak eta komunitateak ere sartzen dira. Mehatxuak eta erasoak askotarikoak badira eta hainbat arrazoiri erantzuten badiete ere, giza eskubideen defentsa oztopatzea, eta gizarte-sarea beldurrak eta mesfidantzak sortuz haustea da betiere helburua. Dena den, eraso indibiduala izanik ere, erakundeari kaltea eragin nahi zaio normalean.

Ilido horretan, Programak lotura bat ezartzen du alderdi indibidualaren eta kolektiboaren artean. Antolatuta dauden pertsonak hartzen dira indibidualki, gizarte-erakunde edo gizarte-mugimenduetan sartuta daudenak.

- **Kontranarratibak sortzea**: giza eskubideak defendatzen dituzten pertsona eta kolektiboak kriminalizatzeko estrategia globalei erantzunez –izan ere, normalean, eta besteak beste, “subertsibo”, “garapenaren etsai” edo “gaizkile” gisa aurkezten dituzte–, funtsezkoa da kontranarratibak sortzea nazioarteko komunitate-tik haien lana publikoki legitimatzeko, funtsezkoa guztion onerako, eta mundu justuago eta jasangarriago bat eraikitzeko.
- **Baliabide ekonomiko eta materialak**: giza eskubideen defendatzaileek, haien erakundeek eta ingurune hurbilak (familia eta haien kargurako pertsonak) bitarteko ekonomiko eta materialak behar dituzte miseriarik gabeko bizitza bermatzeko. Segurtasun-arrazoiak direla-eta sarritan nahitaez etengabe desplazatzen ibili behar izatea pobretze-iturri bihurtzen da, bizirauteko posibilitateak desegituratu egiten baitira, hain zuzen ere. Gainera, etorkizunari buruzko zalantza prozesu osoan nabaritzen da.
- Babes-mekanismoen eta giza eskubideen defendatzaileen errealitatearen **begirada integrala**: egoera desberdinei erantzuten dieten mekanismoak dira aldi batean babesteko programak eta asilo-eskubidea. Sarritan erbestea da bizia salbatzeko bide bakarra.